

**BAT-BATEKO BERTSOAK EPAITZEKO IRIZPIDEEN
BILAKAERA ETA BERTSOGINTZAREN ZENBAIT AJE**

EGILEA: MARTIN ARAMENDI ARANA

Aurkibidea

0.- Sarrera.....	3
1.- Txapelketa nagusien eta bertso-epailetzaren historia laburra eta bilakaera: hasierako irizpideetatik egungo irizpideetara bitarteko ibilbidea.....	5
1.1.- Hiru aro nagusi.....	5
1.1.1.- Gerra aurreko txapelketak (1935 eta 1936).....	5
1.1.2.- Euskaltzaindiak antolatutako txapelketak (1960, 1962, 1965, 1967, 1980 eta 1982)6	
1.1.3.- Bertsozale Elkarateak antolatutako txapelketak (1986, 1989, 1993, 1997, 2001, 2005, 2009 eta 2013)	9
2.- Azken urteotako epaimahaiaren funtzionamendua eta txapelketetan egiten diren zenbait akats	13
2.1.- Taldeen osaera eta funtzionamendua	13
2.2.-Txapelketetan egiten diren akatsik ohikoenak	14
2.2.1.- Binaka, gaia emanda	14
2.2.2.- Banaka, lehen puntua emanda	15
2.2.3.- Banaka, gaia emanda	16
2.3.- Hizkuntza-akatsak: txapelketan ez ezik plazetako bertsogintzan zabaltzen ari diren hainbat forma oker	17
2.3.1.- Errima-hitz desegokiak edo desegoki erabiliak.....	17
2.3.2.- Okerreko aditz-kontrakzioak.....	20
3.- Epailetza modu berriak esperimentatzeko proposamena.....	22
BIBLIOGRAFIA.....	24

0.- Sarrera

Bertsolaritzaren lehen aipamen dokumentatuak XVIII. mendearen amaierakoak dira, eta hasieratik beretik ageri da bertsoa lehia- eta erronka-giroari lotuta. Historiaren orrietan jasota dagoen lehenbiziko bertso-desafioa 1801ean izan zen, Villabonan. Lau mila lagun elkartu omen ziren bi bertsolari —Joxe Joakin Erroizenea *Txabolategi* hernaniarra eta Juan Inazio Zabala amezketarra— aurrez aurre ikusteko. Bosna ontzaurre jokatu zituzten bertsolariek, eta epaile bana eraman zuten: Txabolategik Aizarnazabalgo sakristaua, eta Zabalak Fernando Bengoetxea “Fernando Amezketarra”; Villabonako alkateak, berriz, Jose Mendizabal apaiza izendatu zuen epaile-erabakitzailerik. Ez dakigu zer irizpide erabili zituzten. Bakoitzak bereak, seguru asko; baina hiru epaileak bat etorri ziren azken epaia ematean: berdinketa; eta saioa entzutera elkartutako jendetzak txaloka eta bibaka hartu zuen epaimahaiaren erabakia.

Gaur egun, bertsolaritza oso hedatua eta sustraitua dagoen fenomeno da euskaldunon artean. Bertsolaritza-mugimenduaren proiektu nagusia ez da lehia, inondik ere. Hogei mila neska-mutil dabilta ahozkotasuna lantzen hezkuntza arautuan, eta bi mila inguru bertso-eskoletan; urtean, mila eta lauhun bat bertso-ekitaldi egiten dira euskal herrietan; Xenpelar Dokumentazio Zentroan etengabe ari dira lehengo eta oraingo dokumentu askotarikoak —idazki, ikus-entzunezko, argazki eta abar— jasotzen. Nolanahi ere, ukalezina da txapelketek arrakasta handia dutela, oihartzun ikaragarria izaten dutela eta jendetza mugiarazten dutela. Gustatu egiten zaigu bertsolariak nor-gehiagoka ikustea —zer-gehiagoka esatea egokiagoa litzateke, beharbada—, eta samaldaka joaten gara gure herrialdeko edo Euskal Herriko txapelketak iristen direnean. Oso gutxitan suertatzen dira, ordea, Villabonako desafio hartan izan zenaren antzeko epaiak, batzuk eta besteak asebeteta uzten dituztenak.

Izan ere, txapelketako saio bat entzuten duen bertsozaleak sailkapen bat izaten du buruan ia beti, saioa amaitzen denean; bertsolariaren lana epaitu egiten baitu bertsoak entzun ahala. Gehienek buruz egiten dituzte beren kalkuluak, beste batzuk koaderno eta guzti aritzen dira, epaileen antzera, oharrak hartzen eta puntuak banatzen. Jokabide naturala da, noski, beste jarrera batekin joatea txapelketako saioak entzutera, bertsolaria bera ere halaxe joaten da-eta: ez du berdin kantatzen ohiko jaialdi batean, bertso-afari batean edo txapelketan; badaki epaile batzuk daudela bertsoak banan-banan puntuatzen, badaki entzuleak ere beste jarrera batekin daudela, eta esan behar dituenak doitzen ahalegintzen da, nola edukiz hala formaz. Azken batean, komunikazio-kodea aldatu egiten da, ez da ohiko plazetakoa edo mahai bueltakoa, eta bertsolaria bertsokera egokitzen saiatzen da txapelketako komunikazio-kodera.

Eta, kode horretaz nahiz bertsoak epaitzeko kontuan hartzen diren gainerako irizpideez ondo jabeturik egoten da epailea. Nahitaezkoa da epaituko dugun hori epaitzeko baliabideak eta parametroak ongi barneratuak izatea, eta joko-arauak zein diren jakitea, epaile-lana ez da-eta lan erraza: neurtezina den zerbait epaitu behar izaten da; bertsoa, izan ere, ezin da metrotan edo kronometroarekin neurtu. Irizpide batzuk daude, baina irizpide horiek aplikatzean eta bertsoa norberaren galbahetik

pasatzean, emaitza ez da bat eta bakarra izaten. Norberaren ibilbideak, lanbideak, zaletasunak edo dena delakoak eraginda, epaile guztiek izaten dute arreta handiagoz zaintzen duten alderdiren bat; eta, beraz, ez da harritzekoa askotan haien epaia eta entzuleen ustea bat ez etortzea, epaileen artean ere askotan egoten dira-eta desadostasunak.

Badakigu neurtezina den zerbait epaitzea ez dela inoiz zientzia zehatza izango, baina horrek ez du esan nahi hobetu ezin denik, edo gure eginkizuna hobetzen saiatu behar ez dugunik. Asmo horrexekin heldu diot lan honi, hain zuzen ere. Hasteko, bertsoak epaitzean zer hartzen dugun kontuan azalduko dut; eta, horretarako, epai-irizpideek txapelketaz txapelketa izan duten bilakaera laburbilduko dut, epaile-lana hobeto ulertzen eta gehiago estimatzen lagunduko digutelakoan (bertsozale asko hurbiltzen zaigu bertsoak epaitzean kontuan zer hartzen dugun galdezka —gehienetan, galdera hori egin aurretik, lasai asko aurpegiratzen digute halako bertsolarik aurrerago behar zuela edo beste hari puntu gehiegi eman dizkiogula—). Ondoren, azken txapelketetan ohiko bihurtu diren jokabide eta esateko modu batzuk —errimatu eta neurrian kabitu beharrak sorturiko esaldiak, errima-hitzak eta abar, guztiak ere ajeren bat edo akatsen bat dutenak—, jaso eta azaldu nahi ditut, horien erabilera kezkarria iruditzen baitzait, eta, ahal dela, geldiarazi edo baztertu beharrekoa. Azkenik, epailetza- modu berriak probatzeko proposamena aurkeztuko dut. Hein handi batean subjektiboa den aldetik, beti izango da epailetza eginkizun eztabaidatua, baina uste dut merezi duela modu berriak esperimintatzea, sistemarik egokiena orain darabilkiguna dela baiesteko besterik ez bada ere.

1.- Txapelketa nagusien eta bertso-epailetzaren historia laburra eta bilakaera: hasierako irizpideetatik egungo irizpideetara bitarteko ibilbidea

Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusiaren lehen edizioa 1935ean izan zen. Orduan eratu zen lehen aldiz epaimahai ofizial bat, eta ordukoak dira gure eskuetara iritsi diren bertsoak epaitzeko lehen irizpideak. Aurretik, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, hainbat lehia jokatuak ziren Lore Jokoetan, baina ez dago epaileei eta irizpideei buruzko daturik. Dirudenez, askotan, entzuleen txalok eta oihuek erabakitzen zuten irabazlea: haien oihartzuna kontuan hartuta ematen omen zuten epaia epaileek.

Hiru aro bereiz daitezke txapelketa nagusien historian: gerra aurreko txapelketak, Euskaltzaindiak antolatutakoak eta Bertsozale Elkarteak antolatuak.

1.1.- Hiru aro nagusi

1.1.1.- Gerra aurreko txapelketak (1935 eta 1936)

Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedi izan ziren antolatzaile, eta *Bertsolari Guduak* deitu zieten lehenbiziko bi txapelketa haiei. Lore Jokoetan-eta antolatzen ziren guduen aldean, bi berrikuntza handi ekarri zituzten: gai-jartzailearen figura sortu zen, eta epai-irizpide batzuk adostu zituzten, epaimahaiari lana errazte aldera. Izan ere, bertsolari-guduetako epaileen lana zaila izaten baldin bazen —hau da, bi kideren artean garaile bat hautatzea—, are zailagoa izango zen oraingoarena; bertsolari asko lehiatuko baitziren aldi berean, eta, garailea ez ezik, gainerako bertsolarien hurrenkera ere erabaki beharko baitzuten. Beraz, sailkapen bat egitea ahalbidetuko zien sistema garatu behar izan zuten.

Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedi elkarten inguruan ibiltzen zen jende ikasiak parte hartu zuen lehen bi edizio haietako epaimahaian —Jose Ariztimuño "Aitzol", Toribio Alzaga, Jose Olaizola, Txomin Olano, Manuel Lekuona, Joseba Zurimendi eta Leizaola—, eta irizpide batzuk adostu zituzten. Honela dago jasota, hitzez hitz, *Bertsolari Guduak* liburuan (Auspoaren sail nagusia, 53. or.):

"Epa-maiekoak beren iritzia agertzeko, kontuan eduki bear izan dituzte bertsolarien sorpena, irudipena, bertsoarako éreztasuna, bertsoen neurkera, puntuak eta oiñen berdintasuna. Baita ere emandako gaiak erabili zituzten edo ez; eta bakoitzari emandako ogibidearen yabe egin zan edo ez".

Deigarria da orduan, zegoeneko, irizpideetan aipatzea kontuan hartuko zirela sormena eta irudimena; eta, gainera, ez nolana: irizpideen zerrendan bi horiek ageri ziren lehenbizi.

Bitxia da, bestalde, bertsoak puntuatzeko erabiltzen zuten sistema: "Oso txarari: 0; Txar-xamarari: 5; On-xamarari: 10; Onari: 15; Oso onari: 20". Orduko puntuazio-orriak gordeta dituzte Xenpelar Dokumentazio Zentroan, eta ale bat eskuratzeko modua izan dugu.

Journal

BERTSOLARI - GUDAKETA
EPAIKARI-IRITZIA

19 36

392 Saioa

BERTSOLARIEN IZEN TA ERRIAK		PUNTUAK																
		1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	GUZTIRA
Zepai.-	Erresil.	20	16	15	20	18												90
Dargaitz.-	Leburdi	20	20	18	18	20												96
Etxeberría.-	Andoain	18	20	20	20	20												98
Mutuberría.-	Beaten.																	
Lujenbio.-	Errenderi.	20	14	12	12	14												78
Txirrita.-	Alza.	20	18	20	20	20												98
Iriarte.-	Banka.	15	20	20	18	20												93
Txapel.-	Azpeiti.	20	14	14	15	14												75
Harriet.-	Alduides.	20	14	16	18	15												78
Uztapide.-	Zestua.	20	20	18	20	20												98

|||

Bertso bakoitzari puntuak emateko era

Puntuak nola eman leizken

Oso txarari 0
Txar-xamarari 5
On-xamarari 10
Onari 15
Oso onari 20

Epaikarien iritzia orrela bada tarteko puntuak ere jarri lezazke

(Xenpelar Dokumentazio Zentroa)

1.1.2.- Euskaltzaindiak antolatutako txapelketak (1960, 1962, 1965, 1967, 1980 eta 1982)

Espainiako Gerra Zibilaren eta diktadura-aldiaren ondorioz, hainbat urtetako etena etorri zen. Geroago, 1950eko hamarkadan, sariketa batzuk antolatu ziren, Iparraldean batik bat, eta Teodoro Hernandorenaren ekimenari esker. Azkenean, lau urteko beste eten baten ondoren, Euskaltzaindiak hartuko du txapelketen bidez bertsolaritza suspertzeko ardura. Eta guztien gainetik izen bat azpimarratu behar da: Alfonso Irigoien; haren eskutik antolatu ziren hainbat txapelketa, Euskal Herrikoak eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroakoak. Orduan ezarri zen gaur egun oraindik indarrean dagoen sistema: lehenik herrialdeetako txapelketak jokatu, eta onenak Euskal Herriko txapelketara sailkatu.

Bi aro nagusi bereiz daitezke Euskaltzaindiaren ardurapeko txapelketetan:

- 1960ko hamarkada
- 1980ko hamarkadaren hasiera

1.1.2.1.- 1960ko hamarkada (1960, 1962, 1965 eta 1967)

Txapelketa horietan guztietan —Euskal Herriko nahiz herrialdeko— Euskaltzaindiko eta haren inguruko jendea¹ jardun zen epaile-lanetan. Epai-irizpiderik ez da berariaz aipatzen txapelketa horietako bertsoak eta gainerako datuak biltzen diren liburuetan. Pentsan — *La Voz de España* egunkaria eta *Zeruko Argia* aldizkaria— argitaratutako kronika eta iritzi-artikuletatik ondoriozta daiteke gerra aurreko txapelketetako irizpide bertsoak erabili zituztela. Sormena eta irudimena ez dira behin bakarrik ere aipatzen; bai, ordea, beste hauek: “ofizioa nola bete duen, gaiaren mamia, bertsoa biribiltzeko era, potoak, neurria” eta abar. Piramide-egiturako lehiak izaten ziren finalak: zortzi bertsolari hasten ziren goizean, lau sailkatzen ziren arratsalderako, eta lau horietatik bakar bat bereizten zuten, txapeldunarekin buruz burukoa jokatu eta txapeldun berria erabakitzeko. Epaia eman behar zen aldiro elkartzen ziren epaimahaikideak; epaia adosten saiatzen ziren, eta adostasunik ezean, paper batean idazten zuen nor bere erabakia. Halaxe egin zuten 1962ko finalean, eta honela kontatu zuen Alfonso Irigoienek: “Bildu da Juradua, eta or ixtilluak nolako erabakia eman. Nik sekula ez det ikusi Juradua hain seriyo bakoitzak bere iritzia ematen. Bota du bakoitzak bere papera, eta gertatu da Euskalherri osoko txapeldun: Uztapide”. (*Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak*. Auspoaren sail nagusia 10, 196 orr.).

Lau txapelketa horietako bakoitzak iritzi-soka luzeak eta eztabaida sutsoak eragin zituen bertsolari —kasu honetan Inazio Eizmendi “Basarri”—, epaile eta bertsozale zenbaiten artean. Interesgarria bezain argigarria da 1965eko finalaren harira Juan San Martinek *Zeruko Argian* argitaratu zuen iritzi-artikuluak. Epaile-lanetan ziharduen orduan euskaltzain eibartarrak, eta, aldizkariak berak eskatu zion iritzia plazaratzeko, zenbait bertsozaleren haserrea baretze aldera. Oso ondo azaltzen ditu epailetzaren ildo nagusiak, eta bertsozale zein epaimahaikoen artean sortzen diren desadostasunen zergatiak —alde horretatik, ez du batere gaurkotasunik galdu—. Artikulu luzea idatzi zuen, baina azken lerroak ondo laburbiltzen du haren ikuspegia, eta handik bi urtera gertaturikoa hobeto ulertzeko lagungarri zaigu. Hauxek dira, hitzez hitz, artikuluaren amaierako lerroak: “Oinarri hauek mugatzeko, epailari on batek, beharrezkoak ditu Lekuonaren Literatura oral Euskérico, Lafitteren Koblakarien legea, eta milla bertso zar eta berri zerbait ezagutu ondoren, urteetan belarria erne erabilli bertsolari askoren artean —askoren artean esan det eta ez bi edo hiruren artean, itsutasunik ez sortzeko—, beren funtsezko erekin jabetzeko. Erriak ere ori egingo balu, Xalbador aundiak ere arrera ohea izango luke gure Gipuzkoan. Ontaz ere gauza asko esango nituzke. Baiña eskatu didaten neurria baiño luzatu naiz ta bertsolari banintz mai-burukoen aurrean zenbait puntu galduak nituan”. (*Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak*. Auspoaren sail nagusia 10, 237-241 orr.).

¹¹ Joan Mari Lekuona, Joxe Mari Aranalde, Jesus Mari Etxezarreta, Patxi Goikolea, Joxe Mari Arrieta, Rufino Iraola, Joxerra Garzia, Jesus Mari Mendizabal, Joxe Mari Gabiria, Arantxa Arruti, Luis Baraiazarra, Iñaki Sarriugarte, Antton Mari Aldekoa-Otalora, Trino Azkoita, Joxe Urroz, Mixel Itzaina, Inozentzio Olea, Jean Pierre Etzegoin eta Luis Baraiazarra



(Xenpelar Dokumentazio Zentroa)

Tamalez, herriak ez zuen San Martinen gomendioa aintzat hartu, eta Xalbadorri egiten zioten harrera txarrak okerrera egin zuen. Lotsagorritzeko modukoa izatera iritsi zen hurrengo txapelketaren finalean, 1967ko ekainaren 11n. Egun hura da, zalantzarik gabe, bertsolaritzaren historiako egunik tristeena. Ez ziren bat etorri epaimahaiaren epaia eta hainbat bertsozaleren nahia, eta, sekulako txistualdia entzun zen Anoeta pilotalekuan, Uztapiderekin buruz burukoa jokatzeko bertsolari hautatua Xalbador zela jakinarazi zutenean. Gertakizun haren ondorioz, ez zen berriro txapelketa nagusirik jokatu 1980. urtera arte.

1.1.2.2.- 1980ko hamarkadaren hasiera (1980 eta 1982)

Hamahiru urtez txapelketarik jokatu gabe egon ondoren, 1979an berriro heldu zion Euskaltzaindiak antolakuntza-lanari, Bertsolaritza Batzordearen bidez. Epai-irizpideak lau puntu nagusitan bildu eta 1981ean argitaratu zituzten, epaimahaiak abiapuntu bat izan zezan, eta "bertsozalea nahaspila ez zedin". Euskaltzaindiaren IX. Biltzarrean onartu zituzten, Arrasaten, eta horregatik ezagutzen dira "Arrasateko Arauak" izenarekin:

"Epai-mahaiak, berak ere neurketarako abiapuntu bat izan zezan, eta bertsozalea nahaspila ez zedin, honako aburu hauez baliatzea erabaki zuen juradoak:

- a) Gaia: gaiari zehatz heldu eta gainera sakondu eta aberastu behar du bertsolariak.
- b) Hizkuntza: esateko moduaren edertasuna.
- c) Egitura: gaiaren sarrera, jarraipena eta bukaera.
- d) Neurriak eta puntuak: neurria musikaren araberan, puntuetan, potoez gainera, ia aberatsak, errezak edo pobreak direnari begiratuko zaio".

Bi txapelketa horiek ere sortu zuten hizpiderik. Bertsokera berria ekarri zuen Amurizak, bai moldez bai edukiz. Bertsozale asko txunditurik geratu ziren berrikuntzarekin, eta epaileek saritu egin zuten haren ekarpena. Berria den ororen aurrean ohikoa izaten da aurkako iritziak agertzea, eta Amurizaren ekarria ez zen salbuespena izan: zenbaitek naturaltasunik eta txinpartarik gabekoa iritzi zioten bertsolari bizkaitarraren estiloari. Nolanahi ere, hedabideetan ez zen, aurrekoetan bezala, aparteko eztabaidarik eta iritzi-trukerik izan. Aitzitik, urak barnean zebiltzan nahasi. Desadostasun handiak sortu ziren bertsolarien eta antolakuntzaren artean. Antolakuntzari egozten zioten aurrez adosturiko arau eta betebeharrak batzuk azken orduan eta kontsultatu gabe aldatu izana. Epaimahaiaren osaketan ere ez zetozen bat; eta, azkenean, bertsolari eta bertsozale-talde batek erabaki zuen elkarte bat sortzea txapelketa antolatzeko, besteak beste. Hala eratu zuten Bertsolari Elkarteak, gerora "Bertsozale Elkarteak" izena hartu zuena, gaizki-ulertuak saihestearren, bertsozaleek bertsolariak adinako esku-hartzea zuten-eta.

1.1.3.- Bertsozale Elkarteak antolatutako txapelketak (1986, 1989, 1993, 1997, 2001, 2005, 2009 eta 2013)

Epai-irizpideak kontuan hartuta, hiru multzotan bereiz daitezke Bertsozale Elkarteak antolaturiko txapelketak: 1986ko txapelketa, 1989, 1993 eta 1997ko txapelketak, eta 2001, 2005, 2009 eta 2013ko txapelketak.

1.1.3.1.- 1986ko txapelketa

Hainbat batzorde eratu zituzten 1986ko txapelketa antolatzeko, eta horietako bat arduratu zen epaimahaiak eta epai-irizpideez. *Bertsolari-Txapelketan epaimahaioek erabil ditzaketan irizpideei buruzko aurreproiektua* prestatu eta aurkeztu zuten 1985eko urrian, Loiolan (Azpeitia) egin zen bileran. Eztabaidatu eta onartu egin zuten dokumentua, zenbait aldaketa sartuta; eta 1985eko urriaren 21ean osatu zuten azken dokumentua, izen honekin: *Bapateko bertsozaleen neurtzeko legeak eta irizpideak*.

Hauexek dira, laburbilduta, 1986ko txapelketan erabili zituzten irizpideen ezaugarri nagusiak:

- "Bertsoak neurtzeko metodo praktikoa baten beharra" aipatzen du aurreproiektuak, eta horri erantzuten ahalegindu ziren, metodo praktikoa bat ezartzeko, bide luzea egin beharko zela argi utzita.
- Bertsoak banan-banan puntuatuko dira, eta lau atal hartuko dira kontuan bertso bakoitzaren puntuazioa erabakitzeko: "Bertsoaren puntuaketa guztira 10 izanik, 3 puntu emango genioke gaiari, beste 3 hizkerabideari, beste 3 metrikari eta 1 egiturari".

- Eman ahala argitaratuko dira puntuak. Hau da, emandako puntu-kopurua jendeari erakutsiko dio epaile bakoitzak, ohol bat jasota, baina bertsolariek ez dute ikusiko.

Aurreko txapelketetako irizpideekin alderatuz gero, haien ildo berekoak direla esan daiteke, baina oraingoak zehaztasun eta argitasun handiagokoak, itxura batean behintzat. Kontuan hartuko ziren alderdiak lau atal nagusitan —gaia, hizkerabidea, metrika eta saioaren egitura— multzokatu zituzten, atal bakoitzean zehaztu egin ziren “Gauza positiboak” eta “Gauza negatiboak”, eta, zehaztu egin zen, era berean, atal bakoitzaren balioa.

Nolanahi ere, puntuak emateko eta jakinarazteko modua izan zen berritasun nagusia. Ordura arte jokaturako txapelketetan, inoiz ez zen puntuaziorik argitaratu: ez saioa jokatu bitartean, ez amaitutakoan; bertsolari bakoitzak orotara zenbat puntu lortu zituen esaten zen, besterik gabe. Sekretismo horrek ezinegona sortzen zien hainbat bertsolariri, eta ez zuen asebetetzen bertsozale askoren jakin-mina. Sistema berriak ere, ordea, ez zuen espero bezain emaitza onik ekarri. Publikoak epaileen eta bertsolarien aurretik ikusten zuen puntuazioa. Epaile bakoitzak bazekien zer puntuazio eman zuen, baina ez gainerako epaileek zer eman zuten. Gainera, puntuazioak agerian jarri bezain laster, barbaroa sortzen zen publikoaren artean; eta, horrek, aldi berean, urduritasuna eta nahasmena sortzen zien bertsolariei zein epaileei, barbaroak desadostasuna adierazten zuela uste izaten baitzuten.



(Xenpelar Dokumentazio Zentroa)

Hala, txapelketaren ondorengo balorazio-bileretan, erabaki zen esperimntua bere horretan uztea, eta gehiago ez errepikatzea. Ekarri zuen, ordea, aldaketa bat hurrengo txapelketetarako: harrezkero beti argitaratu izan dira puntuazioak, behin saioa amaitutakoan eta ariketaz ariketa, epaile guztienak batuta.

1.1.3.2.- 1989, 1993 eta 1997ko txapelketak

Aurreko txapelketaren balorazio-bileretan argi geratu zen oraindik gehiago doitu eta zehaztu beharra zegoela bertsoak epaitzeko irizpideen dokumentua. Aurreko aldian ez bezala, garaiz heldu zioten eginkizun horri; lantalde zabal bat osatu zuten 1986ko txapelketan epaile aritutakoekin eta beste zenbait aditurekin, eta 1989ko udaren aurretik finkatu zituzten udazkenean jokatuko zen txapelketa epaitzeko irizpideak².

Aurreko txapelketan (1986) erabili ziren irizpideen aldean, bi berritasun nagusi ageri dira: batetik, testuaren hasieran, bertsoak sailkatu egiten dira, mota bakoitza definitzen da eta bakoitzari dagokion nota zehazten. BALEKO bertsoa hartzen da abiapuntu edo oinarritzat³; eta, bestetik, adierazten da figura literarioek ematen diotela bertsoari indarra, eta hainbat figura literario —ironia, metafora, irudia, errepikapena, progresioa, onomatopeia...— aipatzen dira, adibide eta guzti.

Gainerakoan, aurreko txapelketako irizpide bertsuak jaso zituzten —gaia, hizkera, metrika eta beste—, baina orduan baino xeheago eta zehaztuago.

1993ko Bertsolari Txapelketa Nagusian, epaile-taldea berritu egin zen, baina lau urte lehenago onartutako irizpideak erabili zituzten. Txapelketaren ostean, epaile-taldeak lanean jarraitu zuen, eta zehaztasun tekniko batzuk egiteko premia ikusi zuten, errimek eta hizkerari zegokienez. Bestalde, berriaz adierazi zuten merituak saritzeko ahalegina egin behar zuela epaileak, akatsak zigortzen itsutu gabe.

1.1.3.3.- 2001, 2005, 2009 eta 2013ko txapelketak

Joxerra Garziaren tesiak⁴ nolabaiteko iraultza ekarri zuen bertso-mundura, eta epailetzara, bereziki. Bertsoa komunikazioaren ikuspegitik aztertzen hasten da; komunikazio-ekintza den aldetik, testuinguruak ere garrantzia hartzen du, eta epai-irizpideak berrikusteko eta berridazteko premia ikusten da, komunikazioaren teoriatik abiatuta.

² *Bertsoa epaitzeko erizpide nagusiak. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia 89* Euskal Herriko Bertsolari Elkarte - Elkar, 1990.

³ Honela definitu zuten epai irizpideetan zer zen baleko bertsoa, eta zenbat puntu emango zitzaion bertso bakoitzari: "BALEKO BERTSOA akatsik eta meritu nabarmenik gabeko bertsoa izan liteke, baina baita akats hainbat meritu dituena ere. BALEKO BERTSOAK 6tik 5erako puntuazioa izango du, eta hortik gorako nahiz beherako puntuazioak justifikatu, arrazoitu egin beharko dira. Hain zuzen, ondoren zehazten diren erizpideen arauera. Bertso aparta: 9/10 puntu; bertso oso ona: 8 puntu; bertso ona: 7 puntu; bertso BALEKOA: 6/5 puntu; bertso txar samarra: 4 puntu; bertso txarra: 3 puntu; bertso oso txarra: 2/1 puntu".

⁴ Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak. 1999

Ildo horretan, 2000. urtean egin ziren lehen urratsak. Aurretik zeuden irizpideei komunikazio-ikuspegia gehitzea erabaki zen, eta *Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideak* (Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, 2000) eman ziren argitara, liburuxka batean. Baina ez zen behar beste sakondu komunikazioaren parametroetan, eta gabezia horretaz jabeturik, 2005ean osatu eta berrargitaratu zen dokumentua, komunikazio-ikuspegi osoago eta landuago batekin⁵.

Lau multzotan laburbil daitezke irizpide berri hauen ezaugarri nagusiak:

- Bertsoaren komunikazio-ezaugarriak zehazten dira, eta bertsogintzaren berezitasunetan sakontzen da: ahozko komunikazioa izatea, bat-batekoa, testuaren eta testuinguruaren garrantzia... .
- Komunikazio-estrategia horretan, bertsolariak du erabakimena, eta epailearen eginkizuna da komunikazioaren kalitatea neurtzea eta estrategia eraginkorra izan den ebaztea.
- Kontzeptu berriak —ordura arte irizpideetan erabili gabeak— aipatzen dira: gaia eraikitzea, bakarkakoetan gaia abiapuntu izatea, koherentzia, egokitasuna... .
- Testuaz haragoko elementuak jasotzen dira: doinua, kantaera, baliabide paratestualak, gorputz-adierazpideak... .

Gaur egun, oraindik, 2005eko txapelketa nagusirako onartutako irizpideak daude indarrean. Gerora, 2009ko eta 2013ko txapelketei begira, ñabardura batzuk egin zitzaizkion dokumentuari: batetik, denbora-muga batzuk ezarri ziren, ariketaz ariketa, kantuan hasi aurreko isiluneak laburtze aldera, eta lehiakide guztiak baldintza beretan lehiatze aldera; eta, bestetik, formatua aldatu zen, testua bisualagoa eta ulerterrazagoa egiteko ahaleginean.

Azkenean, ibilian-ibilian, esan daiteke bertso-lehiak epaitzeko tresna egokia daukagula eskura eginkizun horretan aritzen garenok. Bide luze horretan (1935-1993) ezinbestekoa izan da jende askoren lan arduratsua eta gogoeta etengabekoa, belaunaldiz belaunaldi eta katebegiz katebegi elkarlanean gauzatua.

Hala ere, bizi-bizirik dagoen mugimendua da bat-bateko bertsogintza, unean uneko eta gunean guneko premietara egokitu beharrak etengabe berritzera bultzatzen duena. Eta, hortaz, litekeena da, etorkizunean, irizpideak doitu behar izatea, komunikazio-ekintza berriak egoki epaitzeko. Ez dirudi, ordea, aldaketa handirik egin behar izango denik; ez behintzat epe laburrean. Nahikoa izango da, seguru asko, ukitu batzuk egitea eta xehetasun batzuk sartzea. Orain arte bezala, jardunak berak eta haren gaineko gogoetak erakutsiko dute aldaketarik behar den edo ez.

⁵ *2005eko Txapelketa Nagusia*. Euskal Herriko Bertsozale Elkarte. 2005.

2.- Azken urteotako epaimahaiaren funtzionamendua eta txapelketetan egiten diren zenbait akats

Bost epaile-talde daude Euskal Herrian, gaur egun; probintzia edo herrialde bakoitzean —Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Iparraldea eta Nafarroa— talde bana aritzen da, nor bere lurraldeko txapelketan, eta talde horien ordezkariak osatzen dute, lau urtez behin, Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko epaimahaia. Talde bakoitzak lan egiteko bere erritmoak eta moduak dituen arren, antzeko funtzionamendua izaten dute guztiek, eta epaile ariko diren txapelketa baino urtebete edo urte eta erdi lehenago hasten dira taldeak osatzen eta entrenamendu-bilerak egiten.

2.1.- Taldeen osaera eta funtzionamendua

Bertso-epaile izateko, ikastaroak antolatzen dira noizean behin, taldeak berritu edo osatu behar direnean. Oro har, ordea, talde finko samarrak izaten dira. Urteen poderioz, eta txapelketa batetik bestera, ohikoa izaten da —lana, familia edo norberaren aldartea dela medio— aldaketaren bat edo beste gertatzea; normalean, behin taldean sartzen den epaileak taldekide izaten jarraitzen du zortzi edo hamabi urtez, gutxienez.

Lanbide eta izaera askotariko kideak elkartu ohi da epaimahaian⁶, baina guztiek partekatzen dituzte ezaugarri hauek: oso bertsozalea izan, egungo bertsogintza hurbiletik jarraitu —komeni izaten da ahalik eta estilorik eta bertsokerarik gehien ezagutzea—, talde-lanean aritzeko prest egon eta zentzu kritikoa izan.

Epai-irizpideak zein diren ondo jakiteaz gain, nahitaezkoa da epaile batentzat trebakuntza- eta gogoeta-saioretan parte hartzea; bertso bat entzun ondoren iritzi soil dena, bat-batean, segundo gutxi batzuen buruan, zenbaki bihurtzea lan nekeza izaten baita, hasieran bereziki. Jardutearen poderioz ikasten da, eta hartzen da konfiantza. Eta, azken batean, horixe egiten da, behin eta berriz, epaileen entrenamendu-bileretan: era guztietako bertsoaldiak —binaka, bakarka, lehen puntua emanda, hitza gaitzat emanda...—entzun, puntuatu, nor bere puntuazioa argudiatu, eta, desadostasunik egonez gero, eztabaidatu. Batzuetan adostasuna ekartzen du eztabaidak; beste batzuetan, berriz, ez. Helburua ez da izaten homogeneizazioa lortzea edo denek berdindu epaitzea, ezpada besteren arrazoiketaren bidez norberaren galbahea

⁶ Gipuzkoako epaile-taldea, adibidez, adin eta lanbide askotako pertsonak osatzen dugu gaur egun: arkitekto bat (25 urte), mediku bat (50 urte), enpresa-zientzietako hiru lizentziadunak (24, 34 eta 37), soziologo bat (33 urte), euskal filologian lizentziadun eta hizkuntzalaritzan doktore bat (44 urte), bi ingeniari (26 eta 30 urte), tornulari bat (34 urte), soldatzaile bat (36 urte) informatikari bat (40 urte), DBHko irakasle bat (34 urte), bi euskara irakasle (38 eta 45 urte) eta kazetari bat (26 urte).

fintzea, bertsoari beste era batera begiratzen ikastea eta bertsoaz beste modu batera gozatzea. Garrantzitsua da, izan ere, egoten, entzuten eta gozaten ikastea. Hartara, belarriak zein begiak ondo zabalik izanda, errazago balioesten eta saritzen dira merituak, eta errazago ihes egiten zaio akats-detektagailu eta zigortzaile soil izateko arriskuari. Epailleok —sarritan—, eta entzule asko — ia beti—, akatsa non aurkituko ibiltzen baikara; eta, askotan, itsumen horrek ez digu ikusten uzten bertsoaren beste alderdia: bertsolariak egindako ahaleginak eta ondo eginak. Aitzitik, beste zenbaitetan, oso malgu jokatzeko joera izaten da, eta akats handi-handirik edo nabarmenik izan ezean —hankaluze eta hankamotzak, potoak, irristadak...—, oharkabean joaten dira jokabide, hitz edo forma desegoki ugari.

Esan gabe doa epailearen eginkizuna dela bertsoa osotasunean aztertzea, eta osotasun hori aintzat harturik epaitzea, alderdi edo atal jakin bat epaitzera mugatu gabe. Litekeena da, noski, hutsegite handi samar bat egiten denean, hutsegite bakar horrek eragin handia izatea osotasunean, komunikazioa erabat eten edo lausotu duelako; eta, halakoak, jakina, zigortu egin behar dira.

Hain agerikoak ez diren hutsegiteak ere ugari izaten dira, ordea. Halakoak biltzen eta xehatzen ahalegindu naiz hurrengo atalean, ohartarazteko eta gogoeta egiteko lagungarri izango zaizkigulakoan.

2.2.-Txapelketetan egiten diren akatsik ohikoenak

Bertsolaria bat-batean eta jendaurrean aritzen da sortzen, horrek esan nahi duen guztiarekin. Txapelketak, gainera, urduritasuna eta tentsioa ekartzen dio, lehenaz gainera; eta, ataka estuan dagoenaren erreakzio naturala izaten da inguruan duen edozeri heltzea, bere burua "salbatzeko". Kinka horren ondorio dira atal honetan aztertuko ditudan joerak, baina joerak dira azken batean; eta ereduak ere bai askorentzat, goi mailako bertsolariek gauzatzen dituzten edo haien ahotik irteten diren heinean.

Hizkuntzarekin lotutako hutsegiteek kezkatzen naute gehien, eta horiek aztertuko ditut bereziki, baina aurrez beste batzuk ere aipatu nahi ditut, bertsolarien binakako nahiz bakarkako jardunari eta publikoarekiko komunikazioari zuzenean eragiten diote-eta horiek ere.

2.2.1.- Binaka, gaia emanda

Teman aritzea deitzen zaio lan honi, edo ofiziotan egitea ere bai, garai bateko gai-moduaren eraginez —ohikoa zen lanbide bat ematea gaitzat—. Ederra bezain zirrargarria da bi bertsolari elkarri egoki erantzuten entzutea, hartu eta eman, eman eta hartu ari direla ikustea. Horixe da bertso-jardunaren sorburua edo

bertsotan egiteko jarrera berezkoa; eta halaxe ari behar da —biek jardun behar dute ondo— bertsoaldiak arrakastarik izango badu. Batzuetan, agerian geratzen da elkarri ez diotela erantzun, lagunak zer esan duen entzun ere egin ez dutelako, edo hark esandakoa “iraultzeko” moduko ezer bururatu ez zaielako. Halakoak erraz samar detektatu ohi ditu epaimahaiak, eta, zigortu ere bai, bi monologok elkarrizketarik osatzen ez duten heinean. Beste muturreko jokabidea, ordea, zailagoa da antzematen, nahiz eta emaitza askoz hobea ez izan. Lagunak botatako *arrazoiari* erantzun beharrak itsutzen eta tematzen ditu zenbait bertsolari, epaimahaiak erantzutea balioesten eta saritzen duela jakitun — ez, noski, erantzute soila, egoki erantzutea baizik—. Erantzun behar gehiegizko horrek, ordea, merezi ez duen arrazoiari edo ideiarri erantzutea dakar, sarritan, eta merezi ez duen ateraldiari erantzuteak nekez izaten du arrakastarik. Ezin da beti azkenari azkenarekin erantzuten ibili, ezinezkoa da-eta jenialtasunak etengabe sortzea. Kontuan izan behar da halakoak, bukaerako arrazoiari bukaerako beste arrazoi bikain batekin erantzuten dioten bertsoak, hiruzpalau izaten direla saio batean; ez gehiago. Arrakastaren gakoa da jakitea lagunak bidali digun pilota pasatzen noiz utz, eta noiz jo. Ez da inola ere kontu erraza, segundo gutxi batzuetan erabaki behar baita sartu edo pasatzen utzi. Baina pilota guztietara itsu-itsuan sartuta, uste eta nahi baino gehiago joango dira txapapera, eta hori ez da ona ez bota duenarentzat, ez haren kidearentzat, ezta saioaz gozatzerako joan den entzulearentzat ere.

Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta Azterbideak liburuan temako jardunerako hiru joera daudela jaso eta azaldu zuen Andoni Egañak: 1) nor bere arrazoi bota lagunaren arrazoiari jaramonik egin gabe, 2) kidearen arrazoi entzun eta zuzenean erantzun, eta 3) bertsoaren hasieran lagunari nolabait erantzun, eta azkenean norberak lehendik pentsatutakoa bota. Eta han aipatzen denez, saio batek hiru joeretatik eduki behar du orekatua izango bada; edo bertsolari batek erantzuteko hiru moduak baliatu behar ditu lan orekatua egin nahi badu. Izan ere, orekatuagoa ez ezik, errazagoa ere bada, itxura batean behintzat, erantzuteko hiru moduak baliatuz egitea bertsotan; bakarrarekin, zailenarekin, tematu gabe.

2.2.2.- Banaka, lehen puntua emanda

Puntuari erantzuteko ariketa oso lan berezia eta zaila da ondo egiteko, gainerako eginkizunetan ez bezala, gaia, doinua eta errima kantuan ematen baitzaizkio bertsolariari, eta bat-batean hasi behar izaten baitu kantuan, bukaerarik pentsatu gabe, eta, beraz, nora iritsiko den ziur jakin gabe. Horixe da ariketa honen funtsa eta berezitasuna: puntuari berehala erantzutea, puntua entzun eta gehienez ere bi-hiru segundoan jauzi egitea, amiltzea, nora eta nola iritsiko den jakin gabe. Gero zer kantatu, edo bertsoa nola amaitu, pentsatzekotan, kantatu ahala pentsatu behar du bertsolariak. Izan ere, puntua jarri eta jauzi egin aurretik koltxoia prestatzeko adina denbora hartzea ariketaren beraren izatea ukatzea da; eta behar bezala erantzun duenarekiko abantaila hartzea ere bai.

Epai irizpideetan, bost segundoko denbora-muga dago ezarrita puntuari erantzuten hasteko. Tarte handiegia dela uste dut. Bi edo hiru segundo utzi behar zaizkio gehienez. Alde ederreko efektua lortzen du puntuari berehala erantzuten dion bertsolariak, lau edo bost segundo hartzen dituenaren aldean. Eta, bestela, egin proba. Nik askotan egin dut, eta ez daukat zalantzarik: nahiago dut kolpeko erantzun erdipurdiko bat entzun, isilune luzeegi baten osteko erantzun on bat baino; hark, distirarik ez badu ere, txinparta behintzat izango du-eta.

Denbora-muga laburtzeaz gain, ez litzateke konponbide txarra puntuari nola erantzun behar zaion irakasten lehenbailehen hastea bat-batekotasuna lantzen duten bertso-eskoletan. Ariketa magikoa da lehen puntua emanda egiten dena, bertsolarietan bertsolarien nor den erakusten diguna, eta, beraz, utzikeria barkaezina litzateke horrela desitxuratzen uztea.

2.2.3.- Banaka, gaia emanda

Bakarkako gaiak garatzeko moduan bide berri bat zabaldu zuen Maialen Lujanbiok 2001eko txapelketa nagusian. Ikuspegi berri bat ekarri zuen; ordura arte apenas erabili izan ziren elementuak —narrazioa, mugimendua, errepikapen neurtuak, denboraren atzera-aurrerak eta abar —baliatu zituen; ideia edo arrazoi soiletan oinarritutako eta haietara bideratutako bertsoak sortu beharrean, istorioak asmatzen hasi zen, horrek bertsoa sortzerakoan dakartzan aldaketa guztiekin. Hurrengo txapelketetan —2003ko Gipuzkoako Txapelketa eta 2005eko Txapelketa Nagusia—, Lujanbiok ekarritako aldaketaren eraginez, seguru asko, oso gai irekiak jartzen hasi ziren kartzelako lana egiteko; zabalegiak ere bai zenbaitetan, eta, gaur egun, oraindik, gai-modu hori ematen zaie bakarka aritzeko.

Entzulearentzat polita da, zalantzarik gabe, puntu beretik abiatutako sei-zortzi istorio desberdin entzutea, bata bestearen atzetik. Baditu, ordea, albo-kalteak ere: batetik, gaia ematen zaionetik kantuan hasten den bitarteko denborak luze jotzen du; eta, bestetik, bertsolari batzuk oso zabal hartzen dute gaia, bertsoak etxetik ekarriak ote diren pentsarazteraino. Halako gai batean dena libre dela ematen du, baina gutxienerako batzuk bete beharra dago. Bertsolariari ematen zaion gaia edo egoera abiapuntua bada, hura errespetatu egin behar da; ezin da norberak nahi duen puntutik abiatu. Eta entzuleak/epaileak berekin, eskutik helduta bezala eraman behar dira, puntuz puntu eta bertsoz bertso, sortzen ari den istorio horretan. Horretarako, ezinbestekoa da konkreziora jotzea; datuak, heldulekuak eman behar zaizkio entzuleari, bidean, lausotan, galduko ez bada.

Lan asko eta zailak dira horiek bat-batean eta hainbeste jenderen aurrean egiteko. Norberak jakin eta kalkulatu behar du, ordea, non dauden bere mugak, zer estilo duen, eta zer garabide komeni zaion, unean-unean, eta gai bakoitzaren aurrean, entzuleak hunkitzeko. Zilegi da mugimendu bisualik gabeko bertsoaldiak osatzea ere,

sentimenduak oinarri hartuz, eta haiek garatuz. Eta bertso-istorioak neurtzen diren neurgailu berarekin neurtu beharko lirateke, istoriorik sortu ez izanagatik bakarrik gutxietsi edo *zigortu* gabe.

Nolanahi ere, guztiontzat —bertsolari, entzule eta epaile— izango litzateke mesedegarri gaiak edo egoerak gehiago zehaztea edo mugatzea, hain zabal utzi gabe. Hartara, bertsolariak argiago izango luke nondik nora jo, ez luke gaia hutsetik sortzen hasi beharko; susmoak desagertu egingo lirateke, eta epaitzeko samurragoa izango litzateke.

2.3.- Hizkuntza-akatsak: txapelketan ez ezik plazetako bertsogintzan zabalitzen ari diren hainbat forma oker

Zuzenean gertatzen diren kultur adierazpenetan, ia beti aurrez sorturiko ekoizpen bat ematen da ikustera edo entzutera. Zuzenean emandako kanta bat, esate baterako, ez da inoiz aurreko aldikoaren berdin-berdina izango; alderen bat egongo da, oso txikia izan arren, emanaldi batetik bestera, baina beti da kanta bera, beste noizbait sortutako ekoizpenaren hainbatgarren erreprodukzioa. Bertsolarien sorkuntza, aldiz, beti da desberdina. Ez daude bi bertso berdina, ez behintzat goitik hasi eta beheraino berdina-berdinak direnak. Errepikatuko dira gaiak, ideiak, doinuak, oinak, esateko moduak... Baina bertsoak beti dira berriak. Tradizio luze eta zabalaren gainean etengabe sortzen eta berritzen ari den jarduna da bertsolaritza.

Etengabe sortze eta berritze horretan, ohikoa izaten da zenbait hitz eta esateko modu modan jartzea eta bertsolariak hitzetik hortzera erabiltzea, nahiz eta egokiak edo zuzenak ez izan. Halakoak, gehienetan, bolada batez erabili, baina gero desagertzen joaten dira; beste batzuk, ordea, hor geratzen dira iltzatuta, eta noiznahi agertzen dira, askotan gutxien uste dugunaren ahotik. Era horretako "makuluak" laburbilduko eta aztertuko ditut atal honetan. Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketetan aurkitutako adibideak dira guztiak ere. Egileen izenak ez ditut jaso; batetik, diskrezioz; eta, bestetik, egiten ari garen lan honi inolako ekarpenik egiten ez diotelako. Gainera, ez litzateke bidezkoa inoren izenik aipatzea, betegarri desegoki hauen erabilera aski orokortua baitago.

2.3.1.- Errima-hitz desegokiak edo desegoki erabiliak

Bertsolariek ahalegin handia egiten dute errimadun hitzak eta horien komunikazio ahalbideak bereziki zaindu eta lantzeko, eta horrek ondorio nabariak izaten ditu sorkuntzan: bertsolarien ekarpen asko atal honetan izaten dira. Aitzitik, zenbaitetan, errimadun hitzak edukirik gabeko betelan huts izaten dira, eta halakoek

min eman beharko ligukete, erabiliaren erabiliz ohitu egiten bagara ere. Hona hemen era horretako zenbait hitz:

- **bezero:**

“konpresaren **bezero**”, “parrandaren **bezero**”, “langabezian **bezero**”.

Adibide horietan, bistan da, ez dagoela egoki erabilia “**bezero**” hitza. Hala ere, sarritan erabiltzen den betegarria da, eta okerreña da, erabiliaren erabiliz, esanahia ulertu eta normaltzat jotzen dugula.

- **trantzea:**

“ ta alabari telefono bat / ekarri genion **trantzen**”, “ lau garagardo hartu ta gero / a ze-nolako **trantzeak**”.

“**Trantzea**”, “**trantzean**”, “**trantzeko**” eta abar, askotan erabiltzen dira, komeni diren eran, baina ia inoiz ez berezko adieran. **Ataka, kinka, larrialdia...** adierazteko erabili behar da “**trantze**” hitza.

- **galako:**

“ Ze eskale **galakoa!**”, “lore-sortarik haundienakin / ez gera joango **galako**”, “ Urte batzutan bizi izan naiz / dotore eta **galako**”.

“**Galako**” ere gehiegitan erabiltzen da errima-hitz moduan, eta ia beti desegoki. “**Galako afaria**” edo “**galako jantzia**” esatea ondo legoke, baina ez dut uste zuzenak direnik “**galako etorri**”, “**galako bizi**”, “**galako ibili**” eta antzekoak. Esango nuke bertsotan bakarrik erabiltzen dela zentzu horrekin. Duela zenbait urte, ohikoa zen, gainera, “**flako**” edo “**plako**” —“diruz nabil **plako**”, “animoz **plako** eta / osasunik gabe”— erabiltzea “**galako**”rekin errimatzeko.

- **sakona:**

“Urdaiazpiko eder/ eta ez da broma / txuleta eta piper / ze afari **sakona!**”, “lanpostu ederra ta /soldata **sakona**”.

Bikaina, ederra, aparta, galanta..., bai, baina zer ote dira “afari **sakona**”, “soldata **sakona**” eta abar!

- **tongo:**

“Nahiz txarra zeranikan / ez nukkeen esango / oraingo konponketan **egin dezu tongo**”, “Lanik ez du egiten / egiten du tongo”.

“**Ondo, esango, egongo...**” direnean bertsoaren oinak, ez da harritzekoa izaten “**tongo**” ere agertzea haien ondoan. Tongo egitea da lehiakideetako batek, sarritan arrazoi ekonomikoak direla medio, iruzur egitea eta nahita galtzea. Ia beti, ordea, bestelako adiera batean erabiltzen da, huts edo kale egin duela esateko, hain zuzen ere. Ez da egokia, beraz, tongo egin duela esatea auto konpontzaile batek autoa ondo konpondu ez badu, edo batek lanean kolperik jotzen ez badu.

- **usai:**

“barkatu baina bidai onari / ezin hartua zuk **usai**”, “Abioiean sartuta zoaz / askatasunaren **usaiz**”.

Usain hitzaren ohiko adieraz gainera, bi hauek ageri dira Elhuyar hiztegiaren:

Usain(a) hartu: 1.- Oler; 2.- Sospechar, recelar, desconfiar.

Usainean (etorri, ibili): Al olor de...

Hortaz, “usain hartu” bi adieratan erabili beharko litzateke, baina bertsotan ez da horrela erabiltzen, eta gehienetan betegarri huts izaten da.

- **esklabo:**

“garbitzeko gutxinez / lana gutxiago / inoiz ez gera egongo / hautsaren **esklabo**”, “trenaren **esklabo**”.

“**Esklabo**” hitza ere askotan erabiltzen da, eta ez beti modurik egokienean. “**Drogaren esklabo**” edo “**lanaren esklabo**” modukoak onargarriagoak dira, hautsaren **esklabo**”, “trenaren **esklabo**” eta antzekoak baino.

- **klaro:**

“Azken bertsoan eskerrak / eman behar ditut **klaro**”, “Berriro ere gurasoengana / jo beharko dugu **klaro**”, “partidarik ez zidan / irabazi **klaro**”, “Zer egin eta norekin joan / euki behar nuke **klaro**”.

“**Klaro**” hitzaren erabilera erruz ugaritu da azken urteotan. Batzuetan, “**noski**”, “**jakina**”... adiera izaten du —ez dut esango gaizki dagoenik, hizketan ere horrela erabiltzen baita zenbait lekutan—, eta, beste batzuetan, “**argi egon**” edo “**argi utzi**”ren lekuan erabiltzen dira “**klaro egon**” eta “**klaro utzi**”. Bigarren erabilera hori ez zait onargarria iruditzen, eta lehenengo adieran gehiegi erabiltzen da aukeran.

- **en fin:**

“Sei urte pasa ta azkenean / berriro nigana *en fin*”, “surf ikastaroa ere / kendu dute *en fin*”.

Bat-bateko bertsogintzan, ahozkoa eta bat-batekoa den aldetik, ohikoa izaten da kaleko hitzak eta formak agertzea, eta horietako bat da “en fin”. Orain dela hamar bat urte, 2005eko Txapelketa Nagusiaren ondoren, hasi ziren erabiltzen, eta harrezkero ikaragarri hedatu da. Askotan, gainera —duen esanahiagatik, seguru asko—, leku estrategikoan kokatu ohi du bertsolariak, azken-aurreko puntuaren amaieran, azken puntuari bide emanaz. Zaindu beharreko kontua da, arinegi jotzen baitugu hitzak eta formak mailegatzeraz, euskarak bereak dituen hitzak eta formak alboratuta.

- **truke:**

“ Lotsatzen dira hala esan dezu / **egin zenunaren truke**”, “ Emaidazu baimena / biontzat da onena / zeren **inglesaren truke** / Euskal Herritik kanpora ere / gehiagok entzungo dute”, “Nere emazteak hau gainditu du / **negar dosi latz baten truk**”, “ **merkealdi hauen truke** / probadoreko kortinak ere / jantziko dituzte!”.

“**Truke**”ere gehiegi erabiltzen da, eta ia beti desegoki. “Zer emango didazu opari honen truke?” edo “urrearen trukean dolarrak eman zizkioten ” eta antzekoak zuzenak dira, baina ez goiko adibideetan ageri diren “**truke**” horiek guztiak.

- **apuru:**

“eta guk zenbat **apuru!**”, “esan dezunarekin / hainbeste **apuru**”.

Gehienetan, “**dugu**”, “**seguru**”, “**helburu**” eta abarrekin errimatzeke erabiltzen da “**apuru**” hitza, ia beti mugagabea, baina izen abstraktua denez, nolakotasunezkoa da eta ez kantitatezkoa; zuzenagoa izango litzateke, hortaz, (**zer-**)**nolako apurua** erabiltzea. Bertsolari batzuek, gainera, halaxe erabiltzen dute. Orotarikoan badaude “**apuru**” hitzaren adibideren bat edo beste, baina hiztegietan jaso gabe dago. Esan daiteke, beraz, batere beharrik gabe maileguan harturiko hitza dela; hor dauzkagu “**estualdi**”, “**estutasun**” eta “**larrialdi**”, eta bertso eder askoak osa daitezke “**zenbat apuru**”ren lekuan “**nolako estutasuna**” erabilita!

Antzeko zerbait gertatzen da “**borondate**” hitzarekin ere. Normalean “hainbat” edo “zenbat” zenbatzaile zehaztugabeekin erabili ohi da, nahiz eta zenbatzerik ez dagoen substantiboa izan. Hona hemen adibide batzuk: “gureganako hainbat maitasun eta hainbat borondate”, “zuk zenbat borondate / bihotza betean!”, “Denek zenbat borondate / errespetatu ta maite...”

- **berdinean:**

“gaur zuri esker kantatu degu / biok oholta **berdinean**”, “nahiz eta bizi geran / etxe berdinean”.

Bi adibide horietan, “**berean**” izango litzateke, noski, forma zuzena. “**Berean**”ek, ordea, hoskidetasun eskasa du “**ahaleginean**”, “**ezinean**”, “**minean**” eta abarrekin, eta hortik dator akatsa.

2.3.2.- Okerreko aditz-kontrakzioak

Bat-bateko bertsoa ahozko generoa denez, ulergarria ez ezik ezinbestekoa da euskalkiek, ahozko mintzairek, hor sarbidea izatea, bestela, ia ezinezkoa izango litzateke eta bertsoan egitea. Ohikoa da, hortaz, bertsolariak —neurto eta errimatu beharrak eraginda— hainbat lizentzia hartzea, eta orain kontrakzioa eginda bota duen hitza hurrena osorik botatzea, edo alderantziz. Badira, ordea, hainbat kontrakzio,

hizketan egiten ez direnak eta bertsotan, erabiliaren erabiliz, arrunt edo eguneroko bihurtu direnak. Hona hemen adibide batzuk:

- "triste egonagatik / badet nola **goza**", "mendi bidean gailurreraino / askotan gerade **neka**", "erabakia gustatu ala ez / burua zergatik **neka**?", "azkenaldian hamaika etxe /dituztelako **enbarga**", "atseden pixkatxo bat / nahiko nuke **eska**", "ze taldea zaidan **toka!**", " eta jendeak ez dakiena / zergatik **plazara**?", "ez dezu disfrutatzen / nahiz gogotik **saia**.

Inon esaten ote da "**goza det**" edo "**goza dezu**"? "**Pasa det**" edo "**kosta zait**" erabiltzen dira, baina besteak ere bai? Hizketan ohikoak dira "**bukau det**" "**osau degu**" "**nekau naiz**" "**enbargau diote**", eta antzekoak, baina esango nuke bertsotan bakarrik erabiltzen direla —sarri eta normaltasunez erabili ere— "**Buka det**", "**osa degu**", "**neka naiz**" "**enbarga diote**" eta abar.

Antzeko zerbait gertatzen da "**ezin**" eta "**ahal**" erabiliz osatzen diren esaldietan; izan ere, maiz, aditzoinak erabiltzen dira partizipio burutuen lekuan:

- **ezin**: "ta nere hipotekari / **ezin** nionez karga **ken**", "gogoa daukat sobera / eta ezin naiz sosega"...
- **ahal**: "ikus ahal banu sikira".

Argi dago "**ezin** nionez karga **kendu**", "ezin naiz **sosegatu**" edo "ikusi ahal banu sikira" liratekeela forma zuzenak.

3.- Epailtza modu berriak esperimentatzeko proposamena

Lehenbiziko atalean azaldu dugun moduan, epai-irizpideak aldatzen eta egokitzen joan dira, garaian garaiko premien eta gogoeten arabera. Epaitzeko modua, ordea, bat eta bera izan da hasieratik: bertso bakoitza osotasunean puntuatu, puntu guztiak batu, eta sailkapena egin. Txapelketen osteko gogoeta-saietan egin izan dira desberdin epaitzeko proposamenak, baina horretan gelditu izan dira, proposamen hutsean. Ezagunena, beharbada, nork kantatzen duen jakin gabe — bertsoak transkribatu eta haiek irakurrita— epaitu beharko litzatekeela zioen hura izango da. Zenbait bertsozalek gogoan dute oraindik 1990eko hamarkadan norbaitek izan zuen burutazio hura, eta tarteka gogorarazten digute, epaileon inpartzialtasuna zalantzan jarri nahian-edo. Zentzugabea izango litzateke, ordea, horrela epaitzea, bertsoa ez baita testua soilik; doinua, kantaera eta bertsolari bakoitzak eranstean dizkion gainerako elementuak ere bertsoaren parte dira, eta argi dago bertso bat desberdina izan daitekeela bertsolari batek edo beste batek kantatu; txiste batek edo ahozko kontakizun batek eragin desberdina izan dezakeen bezalaxe, kontalariaren arabera.

Badakigu, jakin, konponbide magikorik ez duen auzia dela epailtzarena, eta beti egongo dela norbait epaiarekin ados ez dagoena. Ondo asko zekien hori Imanol Lazkanok, 1986ko txapelketaren atarian, epaile ariko zen taldearengana hurbildu eta zera esan zienean: "Zuek lasai, ez kezkatu, ez duzue-eta ondo egingo". Guztiak asebetetzea ezinezkoa izateak ez du esan nahi, ordea, konpontzen edo ontzen saiatu behar ez dugunik. Badago non eta zer probatua, eta probatzeko garai egokia dela uste dut. Saiatzeagatik ez da ezer galtzen, eta hainbat proba gauza daitezke oraingo sisteman inolako aldaketarik egin gabe. Hona hemen hiru proposamen, egokiena betiko sistema den edo berritzea komeni den erakutsiko digutenak:

- 1) Ohiko sisteman epaituko duen taldeaz gain, beste epaile-talde bat jar daiteke, bertsoaren alderdi bana –neurria, errima, sormena, originaltasuna, dialektika...- epaituko duten kideez osatua. Epaimahai ofizialaren puntuazioak balioko du txapelketari begira, baina gerora aukera izango dugu epaimahai berriaren puntuazioarekin alderatzeko, eta emaitza antzekoa den edo asko aldatzen den ikusteko.
- 2) Ohiko sisteman epaituko duen taldeaz gain, hiru-lau laguneko beste talde bat egon daiteke, ohiko sisteman epaituko duen taldearen osagarri izango dena eta bertsolarien lana oro har baloratuko duena, bertsoz bertso puntuatu beharrean. Epaimahai ofizialaren puntuazioak balioko du txapelketari begira, baina beste taldearen epaia ere hor izango dugu emaitzak alderatzeko.
- 3) Puntuaziorik altuena eta baxuena ken daitezke bertso bakoitzean. Gimnastikan eta horrelakoetan egiten duten bezala, bost epaile badira, hirurena hartzen da kontuan, eta sei badira, laurena. Epaileek lasaiago puntuatuko lukete, gehiegi edo gutxiegi emateko beldurrik gabe. Hala, epaileren bati eskua joango balitzaio, ez litzateke erabakigarria izango, eta bi, hiru edo lau lagunek joko balute oso gora edo oso behera, bertsoak merezi lukeelako izango litzateke,

noski. Sistema honek badu, gainera, abantaila bat: ez dago hurrengo txapelketa iritsi zain egon beharrik probatzeko; azken txapelketetako puntuazioak har daitezke, puntuaziorik handiena eta txikiena kendu bertso bakoitzean, eta ikusi sailkapena nola geratuko litzatekeen.

Sistema bat edo beste bat erabili, epaileon lana beti egongo da auzitan eta beti izango da eztabaidatua, ezinezkoa da-eta objektibotasunetik beste subjektibotasunetik duen jardun batek guztiak asebetetzea. Ona litzateke, ordea, sistemarik justuena zein den jakitea, injustiziaren albo-kalteak ahalik eta txikiak izan daitezen.

BIBLIOGRAFIA

ETXEZARRETA Jesus Mari: *Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak*. Sendoa, 1984.

Bapateko bertsogintza neurtzeko legeak eta erizpideak (1985). Xenpelar Dokumentazioa Zentroa.

Bertsoa epaitzeko erizpide nagusiak. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia 89. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak – Elkar, 1990.

Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideak, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, 2000.

GARZIA Joxerra, SARASUA Jon, Egaña Andoni: *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak*, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak – Bertsolari liburuak, 2001.

Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideak, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, 2005.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia 2005, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, 2006.

Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideak, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, 2009.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia 2009, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, 2010.

Bat-bateko bertsoak epaitzeko irizpideak, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, 2013.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, 2014.